

Sarean, bideoen iraultza

Bideo laburrak grabatu eta sarera igotzeko aukerak iraultza ekarri du Internetera; Youtuben jasotako gertaera asko ezagun egin dira, denbora gutxian, munduko lau bazterretan.

ANAKOZ AMENABAR

Gasteiz

Bideoaren erabilerak, denbora gutxian, irauli egin du Internet. Sarera, oztoporik gabe, bideo laburrak igotzeko aukerak arin harpatu ditu ikusle eta bideo sortzaileak. Banda zabala hedatzearen ondorioz, formatuak eskaintzen dituen aukera anitzekin, profesionalen zein zaleen parte-hartzea etengabe areagotuz doa. Youtube web ataria da egun bideo gehien eskaintzen duena, sektoreko handien arteko lehia geroz eta estuagoa den arren.

Hasiera batean, Youtuberen etorkizuna eskasa izango zela esaten bazuten ere, egun ez du inork haren arrakasta zalantzan jartzen. Mark Cuban aberats estatubatuarrek Youtube «inozo batek» baino ez lukeela erosiko aipatu zuen, lizentziarik gabeko bideoen ondorioz auzitegi arazo ugari ekarriko lizkioketako. Handik gutxira, Googlek erosi zuen 1.650 milioi- ren truke, eta Sony, CBS eta Universal telebista kateetako edukia

banatzeko akordioa ere lortu zuen. Sareko bideoen arrakasta ikusita askok ohiko telebista ordezkatuko duela aipatu dute, etorkizun hurbilean behintzat Internet eta telebista bateragarri eta osagarri izan-go direla dirudien arren.

Youtuberen arrakastaren erakusgarri, halaber, sarean agertu diren antzeko orriak. Euskal Herrian, esaterako, Euskaltube jaio zen irailan, euskal bideo sormenaren erreferente nagusi bilakatzeko asmoarekin. «Helburua ez da Youtuberi konpetentzia egitea. Hori pentsaezina da, hark duen indar eta erabiltzaile kopurua ikusita. Baina garbi dugu sareko tresna globalekin batera, tokian tokioek euren txokoa izan dezaketela», adierazi zuen Euskaltubeko arduradun Haritz Rodriguezek atarian aurkezpenean.

Amaigabea da Youtuberen antzeko aukera egin duten orrien kopurua, eta, bide horretan, espezializazioa bilatu dutenena. Godtubek edo Islamtubek, esaterako, gai erlijiosoak dituzte ardatz, eta Schooltubek ikasle eta irakasleen kezak jasotzen ditu.

ZIBERDELITUAK. Arrakastak onerako nahiz txarrerako eragiten dio Youtuberi. Izan ere, eskaintzen dituen edukien gaineko eztabaida pizten da bideo berriak agertu ahala. Erraza du egun edonork bere telefono mugikorrarekin edo bideo kamerarekin gertaeraren bat grabatzea. Eta sartzen diren milaka eta milaka bideoak kontrolaezinak diren heinean, kaltegarriak izan dai-



Igotzen diren milaka bideoak kontrolaezinak diren heinean, kaltegarriak ere lekua aurkitzen dute

Amaigabea da Youtuberen antzeko aukera egin duten webguneen kopurua, espezializazioa bilatuta

tezkeen bideoak, tarte batez behintzat, txokoa bilatzen dute bertan.

Iturri juridikoen arabera, egunerokoan legez kanpokoa dena Interneten ere legez kanpokoa da, baina zaila da sarean delitua harapatzea. Hainbat adituk dagoneko *Far West digitala* deitu izan diote. «Kontrolen gabeziak aprobetxatuta, euren legea inposatu nahi dutenek aukera bikaina dute», aipatu du unibertsitateko irakasle Teodoro Leonek. Lurraldetasunaren faktorea ere gehitu behar zaio kontrola egiterako garaian.

Joan den urrian, esaterako, Gasteizko gazte talde batek ezindu bat biluztera bultzatu eta hartaz barre egiten zuten bitartean gertaera grabatu zuten. Gurasoek salaketa jarri ostean, berehala kendu zuten Youtubetik bideoa. Bideoa zabaldu izana aitortu zuen gazteari Udaltzainek deklarazioa hartu zioten, eta pertsonen ohorearen eta osotasunaren kontrako delitua leporatu zioten. Epaileen erabakia- ren zain aske geratu zen gaztea. Madrilan (Espainia) gertatutako antzeko kasu batean, bestalde, hiru hilabete behar izan zituen biktimaren aitak haren bideoa ataririk kentzeko.

Beste ekintza larriagoak ezagutzera emateko ere erabili izan da Youtube. Finlandiako eskola batean hilaketa egin behar zuen gaztearen bideoa, besteak beste. Zortzi lagun hil aurretik sarean plazaratu zuen abisua gazteak.

Erabirera desegokiaren gaine- tik, ordea, hamaika aukera eskain-

tzen ditu Youtubek. Besteak beste, urrun dauden lagunek euren berri izan dezaten bideoak partekatze- ko aukera edota komunikabideek jasotzen ez dituzten albisteak mundura zabaltzekoa.

Youtuberen indarrak jabetuta, denek bilatu dute euren txokoa bertan. Ingalaterrako erreginak, esaterako, kanal propioa ireki du atarian, eta AEBetako politikari- ere eztabaida politikoak hortik zabaldu dituzte herrialdeko lau bazterretara.


SORRERA. Silicon Valleyko (AEB) ga- rajee batean hasi ziren Youtuberen inguruko ideiak gorpuzten. Internet bidezko ordainketa enpresa bateko hiru langile ohiek atera zu- ten aurrera proiektua. Etxean grabatutako bideo batekin lanean ari zirela bururatu zitzairen ideia Chad Hurley, Steve Chen eta Jawed Kar- meri. Arrakasta berehalakoa izan zen herrialde osoan.

Ugari izan dira atariaren bitar- tez opsetu egin diren gertaerak. Espainiako presidente Jose Luis Rodriguez Zapateroren parlamen- tuko aulkia-aren lapurretak ere tarte- an. Tiempo BBDO agentziak anto- latutako gezurretako lapurretak izan zen, Nazio Batuen Erakunde- ak bultzatutako kanpaina baten harira. Agentziak berberak arra- kasta handia izan zuen MTVkate- aren *Amo a Laura* abestiarekin.


Enpresak aipatuaren arabera, egunean, 70.000 bat bideo labur igotzen dira Youtubera, telebista- ko grabazio eta umore saioen arte- an, eta batez beste 100 milioi lagu- nek ikusten dituzte egunero, zer ikusirik ez baita falta bertan. Az- terketa batek erakutsi du sareko bost gune ikusien artean izan dela aurreratu Youtube.



■ **Hiltzailearen abisua.** Finlandian sarraskia egin zuen gaztearen bideoa Youtuben agertu zen, hilaketa egin aurretik.



■ **Salagarriak.** Milaka bideoen artean, kaltegarriak izan daitezkeen hainbat topatu daitezke sarean, tartean iazera arrazista edo homofoboak dituztenak.



■ **Probak.** Atarian ikusitako bideo motzen artean, istripu eta proba arrisksuen irudiek arrakasta handia dute; irudietakoa Zarautzen grabatuta dago.

